



## Jakobian Eraikina

Alaa Al Aswani

Xabier Olarra – Arantzazu Royo  
Igela, 2011

### Alaa Al Aswani






**Alaa Al Aswani** idazle egiptoarra, 1957an jaioa, Abbas Al Aswani idazlearen semea da. Lizeo frantses batean ikasi ondoren, hortz-kirurgiako ikasketak egin zituen Chicagon, Illinoiseko Unibertsitatean, eta dentista da lanbidez.

Intelektual ezkertiarrengandik hurbil dago eta artikulu franko idatzi du, Egiptoko egunkari eta aldizkarietan, politikaz, literaturaz eta gizarte gaiez. Berriki argitaratu dira ***On the State of Egypt*** izenburua duen liburuan bildurik. ***Kifaya*** (Aski da) oposizioko mugimendua sortu zuen hainbat ekintzailerekin batera.

Garbi azaldu du bere jarrera Egiptoko erregimen-aldaketari buruz, bai 2011re urtarrilaren 25eko iraultzaren garaian, bai aurretik.

*Jakobian eraikina* eleberriak arrakasta handia izan du, bai Egipton eta bai herrialde arabiarretan oro har, eta hogeita hamarren bat hizkuntzatara itzulua da.




2007an *Chicago* aurkeztu zuen, bere bigarren eleberria, AEBetarako emigratioari buruzkoa (intelektualena, iheslariena), eta erregimenak haraino luzatzen duen eskuari buruzkoa.





## Jakobian eraikina



Nobela errealista, ia errealitatetik hurbilegia, kanpoan gelditzen den kontalari batek emana, baina sortutako mundu horretan gaur egungo Egiptoko gizartea ederki erakusten duena. Eraikina bera hantxe dago oraindik — garai batean Suleiman Baxa zeritzon kalean, gaur Talaat Harb, 34an—, nahiz nobelan azaltzen dena ez izan ez garai batean izan zen bezalakoa ez eta gaur den bezalakoa ere. Eraikina 1930etan altxarazi zuen Hagop Jakobian handiki armeniarrek Kairoko Hirigunean —alderik mendebaldrarenean, nobelan bertan ondo azalduko denez—, bere ospeari oinarri sendoa eman nahian.

Eleberrian bertan ederki adierazten zaigu zer bilakaera izan duen: zer mailatako jendea bizi zen iraultza aurreko 20 urteetan, zer aldaketa ekarri zituen Gamal Abdel Nasserren Iraultzak (1952) eta geroztik Golkoko gerra arte (1990). Nobelak Eraikina bera du erdigune, hor gurutzatzen dira pertsonaia nagusien eta bigarren mailakoen bizitzak.

**2002an argitaratu bazen ere, 1990 inguruko gertaerak kontatzen ditu,** baina berehala ohartzen gara gaur eguneko Egiptori buruz ari dela. Eta pertsonaiak eta problematika gaurkoak izan litezkeela neurri handi batean.

Pertsonaien azterketa bat egiten hasiz gero, berehala konturatuko gara **bi mundu daudela Eraikinean: goikoena eta behekoena.** Baina goienean bizi direnak —etxegainean bizi direnak alegia— gizarteko beheko mailakoak direla, eta Eraikineko etxebizitzetan bizi direnak, berriz, erdi mailakoak eta goi mailakoak. Hain zuzen ere, etxegainean, etxebizitza adina gelatxo egin ziren etxea eraiki zutenean, bizilagunek trastelekutarako pentsatuak, baina gero zerbitzari, langile eta gisakoentzat egokitu eta erabili zirenak Iraultzaz geroztik.



Pertsonaien bidez Egiptoko gizarteko maila guztiak agertzen dira: Iraultza aurreko monarkiaren nostalgikoak —aberastasunak galdutakoak, mendebalzale eta ez oso islamzaleak—, Zaki Bei El Desuqi bereziki; iraultza ondoko intelektual mendebalzale aurrerakoiak —Hatem Raxiden familia, eta Hatem bera—; etxegainean bizi diren behe-mailako jendeak eta haien familiak —Busaina Sayed eta Taha gaztea—, politikaz eta Iraultzaz eta abarrez nazka-nazka egina neska, eta islamismo erradikalera joko duen mutila; negozio-gizon handiak eta aginte politikoaren loturak agerian uzten dituztenak: *Hagg* Azzam eta El Fuli, Gobernuko alderdiaren martxa erabakitzen duen politikari ustela.

**Ezin uka nobelak egoera politiko eta sozialaren SALAKETA egiten duela, nahiz eta egileak esan eraikina bera ERABAT IMAGINARIOA DELA eta bere helburua LITERARIOA DELA SOILIK, eta PERTSONAIEK BEREN IZENEAN HITZ EGITEN DUTELA ez inolako klase edo sektoreren izenean. “Busainak esaten**



**duena berak esaten du, berak pentsatzen duena da, ez Egiptoko neska pobreek pentsatzen dutena.** Hala ere, garbi esan beharra dago **aukera bikaina** ematen duela turistari edo teleberrietan agertzen dena bakarrik ikusten duenari **BEGIAK PIXKA BAT IREKITZEKO:** hor ikusiko baitugu 30 urte iraun duen diktaduraren ustelkeria politikoa zertan dagoen oinarrিতua, islamismo erradikalaren sorreraren eta bilakaeraren arrazoiak, gaur egungo islamismo moderatua esaten zaion horren jokabideak, erlijioak Egiptoko gizartean duen pisua —eta islamaren eta kristau koptoen arteko tirabirak—, gazteriaren etsipena, poliziaren jokabide sinetsezina etab.

Hori guztia nahiko modu gordinean emana dela esan behar da, bai ustelkeria eta errepresio politikoa, bai sexu-esplotazioa eta islamak emakumeari ezartzen dion zeregina, bai islamistek daukaten hazteko daukaten lur gizona. Izan ere, 1974tik aurrera Sobiet Batasunarekiko loturak hautsi eta AEBekiko loturak estutu arren, miseria-egoerak berdin jarraitu baitu milioika eta milioika pertsonarentzat.

Horregatik, harritu egin ziren asko ikusita Mubaraken erregimenak ez zuela debekatu liburua. Hala dio Denys Johnson-Davies arabieratik ingelesera hainbat lan ekarri dituen itzultzaile aitzindariak, Al Aswanik hainbat gai arriskutsuz —hala nola ustelkeria politikoa, errepresioa eta tortura, eta homosexualitatea, besteak beste— hain garbi eta natural hitz egiten nobela debekatu ez izana: “Harrituta nago nola ez duten debekatu Egipton *Jakobian Eraikina*, Marokon *Ogi hutsarekin* egin zuten bezala”. Eta Galal Amin ekonomia-irakasleak ere hala dio irribarrez: “Misterio bat da nola atera den aurrera, eta nola ondoren ez duen ondorio gaiztorik izan berarentzat, baina lortu du”.

Debekatzeko beste arrazoirik ere ez zen falta, esate baterako herrialde arabiarretan tabu den eta gaitzespen erabatekoa duen HOMOSEXUALITATEAREN gaia. Sexu-errepresioa eta jazarpenaren inguruko gaiak ere aski gordin dira emanak. Baina Al Aswanik berak diosku erregimenak **BOTEREA EZ GALTZEARI** begiratzen diola soil-soilik, beste kontu horiek txikikeriak direla.

**Hala ere, eleberriaren jokalekuak benetakoak izan arren, ez da *roman à clef* esaten zaien horietako bat. Pertsonaiak ez dira izena aldatutako benetako pertsonak, baina berehala konturatzen gara egiazkoak direla, hezur-haragizkoak,** eta nahiz eta tarteka tipikotzat —eta ia topikotzat— ere har ditzakegun, badirela benetan antzekoak bai Egipton eta bai gainerako herrialde arabiarretan. Horregatik izan du beharbada nobelak arrakasta, bai Egipton, bai arabieraren eremuetan, eta bai mendebaldean.



\* \* \*

**Berria** 2011-02-22

**Alaa Al Aswani : «Diktadura gehiago amaituko dira»**

Kristina Beresain. Kairo

Tahrir plazan protestak egon diren bitartean lerro bakar bat ere ez duela idatzi dio. «Nola egingo nuen ondoan jendea nola hiltzen zuten ikusten ari banintzen. Nire begiekin ikusi dut frankotiratzaileek nola tirokatzen zituzten egiptoarrak». Ala al Asuanik (Kairo, 1957) idazteari ekin dio berriro. Nagib Mahfuzen ostean nazioartean oihartzun zabalena duen idazlea da eta erregimenaren aurrean isildu ez den ahots bakanetakoa da. Beto ofizialarekin ordaindu du. «Ezer gutxi kartzelan egon eta torturatuak izan direnekin alderatuta».

Elkarrizketa osoa irakurri nahi izanez gero:

[http://paperekoa.berria.info/harian/2011-02-22/002/001/libiako\\_erregimenak\\_sarraskia\\_eragin\\_du\\_tripoliko\\_karriketan.htm#despiezea5](http://paperekoa.berria.info/harian/2011-02-22/002/001/libiako_erregimenak_sarraskia_eragin_du_tripoliko_karriketan.htm#despiezea5)